



## Zurriolako Ataria

46. alea

2019-01-18

### Danborrada Hurran

Gaur arratsaldean San Sebastian eguna ospatuko dugu Hurrako atarian. Bertan ikastolako etapa guztiek hartuko dute parte. Danbor doinuak 16:15ean hasiko dira.



### Zakutoak eta pinak eskura gaur bertan

Hurrako danborradaren saioaren ondotik eta DH4ko ikasleek ikasbidaiarako ohiko eskaintzaz gain, 50. urteurreneko zakutoa (5€) eta pina (2€) eskuratzeko aukera izango duzue gaur bertan.



### Danbor entsegua Ategon

Ostegunean danborradako entsegu nagusia izan zuten Ategorrietan. Dena prest dugu San Sebastian eguna ospatzeko.



### Adinekoen Egoitzan Danborrada eskainiz

Aurten ere LH3ko ikasleek *Villa Sacramento* Adineko Egoitzan izan dira eta gaur bertan gure aitona-amonari danborradaren aurrerapen ederra eskaini diete.



50. urteurreneko kantaren perkusio-karaokea, hau da, danborradan jo ahal izateko bertsoia hauxe duzue Zurriola Musika Eskolaren eskutik.

### Hainbat hobekuntza Soroako eguerdiko zerbitzuetan

Aurreko ikasturtean hasitako azterketa eta hausnarketa prozesuari jarraiki, hainbat hobekuntza jarri dira martxan Soroako eguerdiko zerbitzuetan. ([irakurri+](#))



DATORREN OSTIRALEAN ESTRENALDIA. "1968-2018 Zurriola Ikastola, Kultura eraiten" dokumentalaren estreinaldia ilbeltzaren 25ean egingo da Hurrako areto nagusian 18:30ean. ([irakurri](#))

### Berrikuntzak LHko Inauteri jantzietan

Aurten hainbat aldaketa proposatzen ditugu LH4 eta LH6ko inauteri-jantzietan. Datorren asteazkenean *Atarian* gainontzeko mailetako jantzien errepasoa eskainiko dizuegu txosten batean.



### Gona josteta saioa elkarlanean

Aurtengo LHko inauteri-jantzietan proposamen berriak dakartzagu. Hori dela eta, datorren asteazkenean, hilak 23, elkarlanean egindako josteta-saio bat antolatu dugu. Animatu eta [bertan](#) eman izena.



### LH4koak Ordizian

Asteazkenean Ordiziara irteera egin zuten LH4ko ikasleek. Bertan Txanelan lantzen ari diren "Mugi gorputza eta izan ontsa" gaiari gehiago sakondu zuten Delikatuz-eko lagunekin.



## OHARRAK / AGENDA:

- **HH5:** Egiako haur-txokoa. Zirimola taldea. Goiz pasa. Urtarrilak 24.
- **LH2:** Eureka Zientzia Museoa. Egun pasa. Bazkaria ekarri. Urtarrilak 22.
- **LH3:** OEOS kontzertu pedagogikoa. Goiz pasa. Urtarrilak 24.
- **LH4:** EOS kontzertu pedagogikoa. Goiz pasa. Urtarrilak 22.
- **Eskola Kirola:** 8. jardunaldia. A eta B.
- **Aisialdiako jarduerak haurrentzat:** Urtarrilak 19-21.